

1. ERANSKINA

LETREN FAKULTATEKO GRADU AMAIERAKO LANAREN EZAUGARRI FORMALAK¹

1. Koadernatuta joan beharko du, eta azalean, honako datu hauek jaso beharko dira:
 - A. Gradu Amaierako Lanaren egilea den ikaslearen izena
 - B. Gradua
 - C. Ikasturtea
 - D. Gradu Amaierako Lanaren izenburua (idatzitako hizkuntzan)
 - E. Tutorearen izena
 - F. Gradu jakintza-arloa / saila
2. Gradu Amaierako Lanaren laburpena (300-500 hitz artekoa)
3. Lanaren hasieran aurkibidea jarriko da; amaieran, berriz, ondorioa(k)
4. Gradu Amaierako Lanaren ezaugarri formalak:
 - A. Luzera: 50.000-60.000 karaktere, espazio eta guzti (oharrak eta bibliografia barne)
 - B. Formatua eta tipografia:
 - Iturri-mota eta -tamaina: Times New Roman (12)
 - Lerroartea: 1.5
 - Marjinak: goikoa, behekoa eta eskuinekoa, 2.5 cm; ezkerrekoa, berriz, 3.5 cm.
 - Eskuinean eta ezkerrean justifikatutako testua
 - Orrialdeak hurrenez hurren zenbatuko dira, orrialdearen eskuineko beheko aldean
 - Oinaldeko oharrak; zenbaki arabiarrekin eta Times New Roman (10) letra-motarekin
 - C. Irudiak eta koadroak: testuan txertatuko dira, dagokien tokian; eta zenbakiak eta izenburu egokiak jarriko zaizkie.
 - D. Bibliografia, berriz, lanaren amaieran jarri beharko da, alfabetikoki ordenatuta. SOIL-SOILIK lanean zehar aipatutako izenburuak jasoko dira. Bibliografia-erreferentziaren formaturako, bestalde, hainbat tradizio baliatu daitezke; nolahi ere, aukeratutako irizpideari eutsi beharko zaio lan osoan zehar.

¹ Argibide hauek, hain zuzen, formatu akademiko "arrunteko" Gradu Amaierako Lanari egiten diote erreferentzia. Kasu batzuetan, beharbada, Gradu Amaierako Lanaren formatuak ez ditu onartuko estilarau hauek; horrelakoetan, halaxe espezifikatu eta justifikatu beharko da Gradu Amaierako Lanean bertan eta tutorearen ebaluazio-txostenean.